

# Oier Pérez 'Txanprax'

**Musika elektronikoa eta perkusio afrikarra nahasten ditu 34 urteko DJ ermuar honek. Cádizeko 'chill out' batean udako ilunsentiak girotzea da bere azken erronka.**

## - Noiz ekin zenion musikari?

Txikitatik gustukoa izan dut, gitarra eta bateria, batez ere, eta 12 urterekin gitarra erosi nuen. Nire lehen taldea 'Be quiet' izan zen eta hardcore melodikoa egiten genuen. Jarraian, Storbaissek fitxatu ninduen baxua jotzeko.

## - Eta nola heldu zen perkusio afrikarra zure bizitzara?

Nire neskalagunak Afrikako perkusio tradizionala gustukoa nuela zekien eta 'djembe' bat oparitu zidan duela 15 urte inguru. Erritmo horrek segituan harpatu ninduen. Urtean birritan Huescara joaten hasi nintzen, perkusio tailerretara eta bat-batean, hemengo lana utzi eta Afrika eta Holandara joan nintzen.

## - Momentu hartan musika estilo horretan murgildu zinen?

Ez, horren ostean izan zen. Madrilen 6 urte pasa nituen eta bertan dagoen kulturen arteko nahasketa aprobetxatuz, perkusioko maisuak ezagutzen hasi nintzen, Kassoun Sanogo kasurako.



## - Txalaparta ere jotzen duzu?

Bai, eta perkusio afrikarrarekin alderatzen dut txalaparta, biak oso antzinaoak direlako. Gaur egun biak uztartzen dituzten proiektuak badaude, OrekaTx eta Adabegi Kuku Preskue, esaterako.

## - Zer da zuretzat musika?

Arrazakeriarik eta aurreiritzirik gabeko kulturen arteko nahasketa bermatuko duen hazia.

## - Azken urteotan talderen batean ibili zara?

Bai, nire bakarkako saioak egiteaz gain (Txitxarron, Imagen, Pagoan eta NewGuass-en, besteak beste), hainbat taldeko kide eta sortzaile izan naiz. Madrilen musika elektronikoa eta zuzeneko musika tresnak uztartzen zituen proiektu batean egon nintzen, L.S.D.n

(listen, see and dance). Fusio ikaragarria sortzen genuen! Senegaletik Ermura etorritako Jibril Thiorrekin eta Bubarekin Batu taldea egin nuen. Dantzariak ere bazeuden eta Gorka Angulok txalaparta jotzen zuen nirekin batera. Oso talde polita zen, baina orain etentxo egin behar izan dugu. Eibarko Gorka Baskarenekin Mgüam taldea egin nuen eta runba eta funkya jotzen genuen.

## - Zer egiten duzu musikaz gain?

%100era babesten nauen familia eta umetxoak daukat eta horrez gain, 'Tratamientos térmicos Sarasketa'ko zuzendaritza komertzialaren ardura daukat. Musikari gisa lan egin nahiko nuke, baina oso bizitza ezegonkorra da. Hala ere, badakit denbora gutxi barru nire bizitzako aukera helduko dela.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

**IZELAIETA, 40**  
**ZUBIAURRE, 12**

Tel. 17 00 63  
Tel. 17 38 40

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**

38 urte Ermua euskalduntzen